



2021EKO MAIATZAREN 12AN UDALBATZAK IZANDAKO OHIKOA OSOKO BILKURA

BILDUTAKOAK:

ALKATEA: Unai Elkoro Oianguren.

BERTARATUAK: Karmele Uribarri Urresti, Xabier Ochoa Muñoz, Ainhoa Cabero Garcia, Koldo Zubillaga Beltran de Heredia, Alex Dietmar Walter Seiler, Fco. Javier Mar Medina, Mikel Uribeetxebarria Aldalur, Ion Albizu Gonzalez, Irati Pagoaga Zaloña, Jasone Garzia-Etxabe Lopez, Ione Ojea Ugarte eta Gorka Gabilondo Jauregi.

EZ BERTARATUAK:

KONTUHARTZAILEA: Begoña Arenaza Bengoa

IDAZKARIA:Fco. Javier Mendizabal Garate

Aretxabaletan, 2021eko maiatzaren 12an, arratsaldeko sei eta erdiak direnean, goian aipatutako jaun-
andreak elkartu dira Udaletxeko Udalbatzar Aretoan, bilkura egin eta deialdiaren aztergai zerrendan
zehaztutako gaiei buruz hitz egitearren.

1. Aurreko bilkuretako aktak onartzea.

Diotenarekin ados daudenez, 21.03.10 eta 21.04.13ko aktak onartu egin dira.

2. 2021HUOB0003 espedientea. Santakurtz-eko PEASaren proiektua onartzea.


Xabier Ochoak jakinarazi du proiektua aurkeztu dela eta lana bukatutzat ematen dela obrak lizitaziora atera
daitezen eta irailean hasi.

Ion Albizuk esan du abstenitu egingo direla, ez kontra daudelako; ezta gutxiagorik ere. Prozesuaren
hasieran batez ere desadostaun batzuk egon ziren; bereziki prozedurari buruzkoak. Bi faktore egon dira
eragina izan dutenak; alde batetik pandemia bera da, eta bestetik leku fisikoa. Proiektua beharrezkoa dela
deritzo eta bere alderdiaren babesa duela erantsi ondoren, esan du hasieran gertatutakoa kontuan hartuta
bukaeran sentzazioa dela ekarpenak ez direla zintzoki onartu.

Xabier Ochoak erantzun du ekarpenak berdin aztertu direla, kontua ez da zintzoki aztertu diren ala ez.
Teknikariekin eta proiektu partehartzailearekin atera dena dugu eta ez dago desberdintasunik inondik inora.
Ion Albizuren ustez gehiago landu behar zen partehartzea hasi aurretik eta ez da aspektu teknikoa, ikuskera
baizik. Jarraian, erantsi du gauzak egiteko moduak daudela.

Jarraian bozketa egiten da eta EAJ/PNVko zazpi zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bilduko sei zinegotzien
abstentzioarekin Jokin Idarreta Cardona ingeniari zibilak (Asmatu S.L.) idatzitako **“Aretxabaletako
Santakurtz kalea eta inguruko beste kale batzuen Ur-horniduraren eta Saneamenduaren Plan
Bereziaren aldatutako Proiektua”** onartzen da

3. 2005IONE0001 espedientea. Kontratuaren luzapena. Aozaratzako lursailen alokairua.

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABLY4H.3ikD



Alkateak gogoratu du bere garaian udalak lizitaziora atera zuela zenbait lursail alokatzea eta kontratua aurtien bukatzen dela, beste bost urtez luzatzeko aukerarekin. Egia esan, aukera legoke nahi izanez gero berriro lizitaziora ateratzeko, baina lan handia egin dute. Azken urtean hesiak konpondu dira eta itxiturak egoki geratu dira. Kontratua beste bost urtez luzatzea proposatzen da. Jarraian bozketa egiten da eta aho batez erabakitzen da Aozaratzako Udalaren lursailen alokairu kontratua bost urtez luzatu Arientza-Etxebarri Elkarteari(Abasolo) , hau da, 2026ko martxora arte.

4. 2020IKIB00004 espedientea. Etxez etxeko laguntza zerbitzua. Esleipena.

Karme Uribarrik azaldu du proposamena dela kontratua Gizadiri esleitzea. Orain arte Gizadirekin egin da lana eta pozgarria da Gizadik jarraitzea. Tartean, esfortzu handia egin da prezio berriarekin eta prezio hori langileekin inbertitzeko. Lau eskaera jaso dira eta azkenean eskaintza onena Gizadirena da eta pozik daudela gehitu du.

Irati Pagoagak esan du abstenitu egingo direla nahiz eta ados egon egin den balorazioarekin, orain arte egon den enpresak konfiantza ematen duelako eta hori berme bat da; baina aurreko osoko bilkuran komentatu zen bezala, azaldu du ez daudela ados prezioa finkatzeko erabilitako prozedurarekin eta horrexegatik ez da zuzena baiezkoa bozkatzea. Bestela, egindako planteamendurekin ados daudela azaldu du.

Ion Albizuk aipatu du aktan akats bat azaltzen dela, ez delako zuzen jasotzen amaiera aldean Gizadiren eskaintza eta alkateak erantzun dio hala dela, akats bat dagoela Gizadiren prezioan. Aktako akats hori zuzendu egingo da. Jarraian bozketa egiten da eta EAJ/PNVko zazpi zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bilduko sei zinegotzien abstentzioarekin zera onartzen da:

LEHENA: Etxez etxeko laguntza zerbitzua Gizadi Laguntza Zerbitzuak, S.L.ri esleitu urtebeterako 25 €/orduko gehi BEZari dagokion euro batean, hau da, guztira 26 euro/orduko prezioan berea izan delako prezio kalitatean eskaintzarik onena.

BIGARRENA: Alkatea ahalmenu kontratua izenpetzeko Aretxabaletako udalaren izenean eta ordezkari bezala.

HIRUGARRENA: Erabaki hau jakinarazi Gizadi Zerbitzuak, S.L.ri, Zaintzen, S.A.ri, Gizatzen S.A.ri eta Goxara, S.L.U.

LAUGARRENA: Kontratuaren arduraduna Begoña Arenaza Madinabeitia gizarte langilea izendatu.


5. 2021IUOI0001 espedientea. 2020ko inbentarioaren onarpena.

Kontu-hartzaileak aipatu du gauza batzuk hobetu behar direla. Badaude gauza batzuk aspaldi ikusi ez direnak eta zenbait kasu eguneratu behar dira, balorazioak hobeto jarri etab. Horretarako, agian enpresaren bat kontratatu beharko litzateke.

Alkateak esan du kiroldegiko arazoak sortu zirenean gai hau begiratzen egon zirela, balorazioa berriak egin ziren, baina berriro begiratuko dela erantsi du. Jarraian bozketa egiten da eta aho batez onartzen da 2020ko abenduaren 3ko udal ondasunen inbentarioa onartzea, bere laburpena honakoa izanik.:

2020KO INBENTARIOA

LABURPENA

EPIGRAFEAK	BALORAZIOA		
	2019/12/31	2020/12/31	DIFERENTZIA
Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate		
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABLY4H.3ikD		



1º.- Higiezinak	43.154.926,27 €	43.929.964,19 €	775.037,92 €
2º.- Eskubide errealak	79.394,35 €	66.433,23 €	-12.961,12 €
3º.- Izaera historikoko ondasunak	62.988,72 €	62.988,72 €	0,00 €
4º.- Balore higigarriak	707.650,58 €	707.650,58 €	0,00 €
5º.- Ibilgailuak	93.149,65 €	93.149,65 €	0,00 €
6º.- Aziendak			0,00 €
7º.- Altzariak	3.361.510,26 €	3.425.462,46 €	63.952,20 €
8º.- Ondasun eta eskubide bihurturak.			0,00 €
GUZTIRA	47.459.619,83 €	48.285.648,83 €	826.029,00 €

6. 2021KMAI0001 espedientea. Mailegoaren kontratazioa.


Alkateak azaldu du aurtengo aurrekontuan PEAS obraren zati bat eta konbentuaren beste zati bat egitea jasotzen dela eta kontuak koadratzeko mailegua eskatzeko asmoa dagoela, ia bi miloi eta zazpiehun milakoa. Proposamen onena Kutxak eskaini du. Irizpidea da interes tasarena, kasu honetan Euribor gehi 0,39koa. Gastu gehienak anulatuta daude. Mailegu baldintzak onak dira eta onartzea proposatzen da.

Ion Albizuk esan du bost milioiko inbertsioa igo dela epe motzean gutxi gorabehera konbentua, PEASa eta Arlutzeko kantxarekin eta planteatzen da agintaldi honetako sarrerekin ordaintzea. Ion Albizuk galdetzen du horrek zer esan nahi duen, gai garen kuotak ordaintzeko urte batean. Alkateak erantzun dio kuota bakarrean bi ordaintzea. Planteatzen dena da gehienez bi miloi zazpiehuneko kopurua erabiltzea, sarrera guztiak exekutatzeko eta hiru hilabete behin egoera nolakoa den ikusiko da eta agian inbertsio berrietan atzera egitea ikusi beharko da edo berririk ez hartzea. Egoera txarrean bi miloi zazpiehun mila horiek zortzi urterako geratuko lirakeke, baina ez du uste horrelakorik gertatuko denik dezenteagatik. Bidalitako informazioan 2023rako hirurehun mila pasatxoko kopurua sartuta dago amortizatzeko. Zerbait geratzekotan, bi miloi zazpiehun mila eurotik dezente gutxiago geratuko litzateke. Gerta daiteke sarrera ezohiko batzuk egotea baino horiek kontabilizatu arte ez dago sartzeko asmorik eta sartuko balira, ikusten bada komeni dela inbertsio bat ez atzeratzea exekutatu egingo da, baina asmoa ez da beste inbertsiorik egitea eta pentsatzen da legealdi bukaeran kreditua eduki arren gerakin nahikoa legokeela lanean jarraitzeko hurrengo ekitaldietan.

Ion Albizuk galdetzen dio kontu-hartzaileari zein egoeratan egongo den Udala eta gastuaren neurria orain izoztuta dagoena gero zer etorriko den. Kontu-hartzaileak erantzun dio plan finantzarioa egin beharko dela aurtengo udalaren barrurako funtzionamendurako eta datorren urtetik aurrera plan finantzarioak bete egingo direla. Ikusita zer inbertsio maila altuak dauden datorren urterako, aurreikusten da behar bada plana egin beharko genukeela. Urte bukaeran ez dugu zorrik eduki beharko eta agian mailegu osoa ere erabili beharko da. Mailegua, bestalde, alde aurretik amortizatzeko aukera jasotzen da eta kargarik ez badugu, aurrekia erabili genezake mailegua kentzeko. Gertatzen dena da pandemiarekin diru sarrerak asko murriztu direla eta aurrekia ere asko murriztu da, baina mailegua kenduta diru sarrerak gora joaten badira zorra atzeratu daiteke.

Ion Albizuk galdetzen du horrek zenbateraino baldintzatuko duen hurrengo urteko inbertsio ahalmena. Alkateak galdetzen dio 2022koaz ari den eta Ion Albizuk erantzun dio 2023tik aurrera eta kontu-hartzaileak erantzun dio ez dakiela aurrekusi daitekeen. Hori diru sarreraren arabera egongo da, alde batetik, eta hortik aparte plan finantzario horrek zer baldintzak jartzen dituen. Alkateak aipatu du aurtengo gastuak ikusita nola dijoazten obra potenteen exekuzioak datorren urtean ez betetzea izango dugula. Bete behar direnak hiru irizpide dira, gehien bat: zorpetzea. Hori kreditu honekin betetzen dugu.

Egonkortasuna, datorren urtean ez da beteko baina hortik aurrera bai. Plana 2023ra mugatuko litzateke eta hortik aurrera ez zen beharko eta gastuaren araua datorren urtean gainditu egingo da, baina ez hurrengoan gutxiago gastatuko delako. Kasurik okerreanean, sarrerak gaizki jarraituz gero, baina ez du uste. Gaur bertan Gipuzkoako Foru Aldundiak lehenengo lau hilabeteko datuak aurkeztu ditu eta sarrerak iaz baino dezente haundiagoak dira. 2019an baino 5,2 azpitik. Aurreikusitua hemendik aurrera hobeto joango dela, ez dira

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABLY4H.3ikD



hain datu txarrak. Txarren txarrenean, kreditu osoa erabilia eta gerakinarik gabe geratuta, urtero 340.000 € inguruko karga bat geratuko litzateke.

Ion Albizuk erantzun du ez zela bere asmoa gogoratzea aplikatu beharreko arauak eta arau horiekin ez dagoela ados gehitu du. Bere asmoa bakarrik panorama zein izango den argitzea dela azaldu du eta erantzukizunagatik gai hau babestuko dutela jakinarazi du: bereziki, konpromisoa luzera begira da, ez dakigu zer datorren; baina kreditua sinatzen duzunean luzatzeko beharra duzu eta lehenago bueltatuz gero hobe eta denoi dagokigu horri aurre egitea. Alkateak erantzun dio epe motzeragoko kreditua eskatzea pentsatuta zuela, baina prudentziagatik ez da horrela izan. Lortu dena da aurretik amortizatuz gero, komisorik ez edukitzea. Adibidez, estatuko legeriarekin gerakina izanda beti dirua erabili beharko litzateke kiroldegiko kreditua amortizatzeraz eta horrek %1eko komisioa zeukan. Kreditua dohain zen, baina amortizazioa %1 ordaindu beharko zen; horrek ez zuen zentsu handirik. Orain, ez baduzu aurreikusita inbertsiorik eta gerakinik, amortizatzen duzu eta hurrengo urtean beste panorama bat daukazu. Kontuan hartu datorren urtean dirua soberan izango zenuela eta gastu araua ez zenuela beteko. Hori beste kontu bat dela gehitu du eta zalantzan jartzen du horrek zentzurik ote duen. Dena den ez luke hipotekatuko hurrengo legealdia.


Ion Albizuk esan du ez diola horrek arduratzen, bereziki jakin nahi du ze inbertsio ahalmena egongo den eta kreditua kentzea edo ez erabaki politikoa izan daitekeela. Adibidez, alkateak esan duen bezala, kiroldegiko kreditua kentzeak ez zuen zentsurik; bestela, ahalmena galtzen duzu beste lekuetan inbertitzeko. Partikularrek ere, zorra izanez gero zorra kentzen du komeni bazaio. Hau, azkenean, ekonomia domestikoa bada ere. Alkateak erantzun dio azkenean arauak berdinak direla.

Ondoren, bozketa egiten da eta aho batez erabakitzen da:

“2021eko otsailaren 17an behin-behingo onartutako eta 2021eko martxoaren 27an behin betiko bihurtu zen 2021eko aurrekontuan, 2.695.639,64 eurotako mailegu bat eskatzea aurreikusten zen.

Printzipioz, finantzatu beharreko gasturik garrantzitsuenak, 2021ean onartutako inbertsioak dira, besteak beste:

1 0101.601.151.00.02 2021 (1596) <i>SANTAKURTZ-EKO OBRAREN</i>	60.356,75
1 0101.601.151.00.03 2021 (1597) <i>BEHIN-BEHINEKO APARKALEKUA</i>	48.400,00
1 0101.601.153.20.01 2021 (1598) <i>SAN MIGEL IRISGARRITASUNA</i>	29.000,00
1 0101.601.450.00.01 2021 (1585) <i>SANTAKURTZ-EKO URBANIZAZIOA</i>	1.508.918,78
1 0101.601.450.00.02 2021 (1586) <i>SANTAKURTZ TRANSFORMAZIO</i>	48.523,94
1 0101.622.151.00.02 2021 (1302) <i>KONBENTUA EROSTEA</i>	96.850,00
1 0101.622.151.00.03 2021 (1504) <i>KONBENTUA ERABERRITZEA</i>	491.975,99
1 0101.622.323.00.02 2021 (1589) <i>KURTZEBARRI HAUR-HEZKUNTZA</i>	307.517,43
1 0101.643.151.00.01 2021 (1591) <i>PROIEKTUA-KIROLDEGI AURREKO</i>	25.000,00
1 0101.683.153.10.01 2021 (1587) <i>ELURRA KENTZEKO PALA EGOKITZEA</i>	9.850,00

Sinatzailea	IDAIZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABLY4H.3ikD



1 0201.623.342.20.02 2021 (1592) <i>JUDO KARATE GELAKO TATAMIA</i>	30.000,00
1 0402.601.165.00.01 2021 (1368) <i>ARGITERI PUBLIKOA BERRITZEA (LED)</i>	47.754,42

Aretxabaletako Udalak mailegu eskaintzak eskatu zituen Aretxabaletan egoitza duten finantza entitateei, lau entitatek beraien proposamenak aurkeztu zituztelarik (bostgarren entitateak uko egin zion eskaintza aurkezteko eskubideari)

2021eko apirilaren 16an jaso ziren lau entitateen eskaintzen kartazalak. Jarraian, jaso diren eskaintzen ezaugarriak:

2.695.639,64€	1.Eskaintza	2.Eskaintza	3.Eskaintza	4.Eskaintza
Finantza Entitatea	Kutxabank	Laboral Kutxa	Banco Sabadell	BBVA
Interes tasa	Euribor 3hh + %0,39	Euribor 3hh + %0,43	Euribor 3hh + %0,63	Euribor 3hh + %0,69 (1go 3hil.%0,152)
Amortizazio epea	10 urte	10 urte	10 urte	10 urte
Gabealdia	2 urte	2 urte	2 urte	2 urte
Erabilpen epea	24 hilabete gehienez	Ez du zehaztu	2022/12/31 arte	Ez du zehaztu
Amort.aurreratua zigorra	0 €	0 €	0€	Ez du zehaztu
Ordaintze maiztasuna	Hiruhilero	Hiruhilero	Hiruhilero	Hilero
Bermeak	Foru Funtsa	Ez du zehaztu	Ez du zehartu	Ez du zehaztu
Komisioak – irekiera	0€	0€	0€	0€

Behin proposamenak aztertu eta gero, 1.Eskaintza, Kutxabank Finantza entitateak proposatu duena komenigarriena da erakunde honentzako. Hona hemen aukeraren arrazoiak:


- Interes tasa hoberena

Osoko bilkurak dauka, kasu honetan, mailegu hau onartzearen eskumena, 2021eko sarrera arrunten % 10a baino gehiago suposatzen duelako maileguaren kopuruak (2.695.639,64€).

Beraz, honako erabakia hartzen da:

Lehenengoa.- Maileguaren kontratazioan Kutxabank-ek eginiko eskaintza onar dezala, honako ezaugarriak dituztenak:

Zenbatekoa:	2.695.639,64€
Interes tasa:	Hiruhileko EURIBORa gehi % 0,39ko puntu diferentziala
Amortizazio epea:	10 urte (8+2)
Gabealdiko epea:	2 urte
Erabilpen epea:	24 hilabete gehienez
Ordaintzeko maiztasuna:	Hiru hilabetekoa
Irekitze komisioa:	0€
Aurrez amortizatu ala kitatzeagatik komisioa:	0€
Erabiltzeagatik komisioa:	0€

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABLY4H.3ikD



Bermeak: Udal Finantzaketako Foru Funtsa

Bigarrena.- Kutxabank-eri mailegu horren kontratazioa gauzatzeko baldintza hauek eranstea:

- Aukera izatea maileguaren zenbatekoak bere osotasunean edo zati batean gauzatzea, gauzatzen den kopurutik osotasunerako kopuru hori bertan behera uzteko aukera izanik.

Era berean, maileguei bere osotasunean uko egiteko aukera izatea.

Hirugarrena.- Gipuzkoako Foru Aldundiari honen berri ematea, hari baitagokio kreditu eragiketei buruzko tutoretza, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunari buruzko 12/2002 Legeak 48.5 artikuluan jasotakoaren arabera.

Laugarrena.- Unai Elkoro Oianguren jaunari ahalmena ematea kontratua eta erabaki hau eraginkorra izateko behar diren dokumentuak formalizatu ditzan.

Bostgarrena.- Erabaki hau jakinaraztea eskaintzak aurkeztu dituzten entitate hauek:

- Kutxabank
- Euskadiko Kutxa
- Banco Sabadell
- BBVA

7. **2021KKRH0001 espedientea. Kontu-hartzailearen komunikazioa.**

“KONTUHARTZAILEAREN KOMUNIKAZIOA ARETXABALETAKO UDALBATZARI, 2020.05.13ko, 2020.05.26ko eta 2020.06.10ko KREDITUEN ALDAKETEN ESPEDIENTEEN ONARPENEI BURUZKOA.


APLIKAZIOZKOA DEN ARAUDIA.

- Apirilaren 27ko 2/2012 lege Organikoa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa
- 2013ko otsailaren 12an argitaratu eta indarrean sartu zen 2013ko otsailaren 8ko 1/2013 Foru Araua, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena. Toki Administrazioaren arrazionalizazio eta iraunkortasun neurriak Gipuzkoako Lurralde Historikoan aplikatzeko foru berezitasunari buruzko azaroaren 17ko 13/2014 Foru Arauaren bitartez aldatu zen.(2014ko azaroaren 20ko GAO) Azken 1372014 Foru arau honetatik, Euskal Herriko Epaitegi Gorenak bertan behera utzi zituen 1.4, 2.2, 2.5, 4, 6.2 artikulua eta Xedapen Gehigarria bakarra.
- Diputatuen Kontseiluaren Erabakia, 2019ko urriaren 29koa, Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan Jarraibidea onartzen duena, 2019ko azaroaren 14ko GAOean argitaratua.

EGINDAKO TRAMITEAK

Aretxabaletako Udalak 2021eko ekitaldira luzatu zuen bere aurrekontua, 2021eko aurrekontua 2020/12/31 baino lehen onartu ez zelako.

Udalbatzaren Osoko Bilkurak, 2021/02/17an egindako bilkuran, hasierako onarpena eman zion 2021 ekitaldiko Aurrekontu Orokorrari, eta 2021/03/26an behin betikoa izan zen. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren oinarritzko araudiaren arabera, aurrekontu-

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiatzotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABLY4H.3ikD



egonkortasunaren helburuak ez ziren betetzen, baina bai zor publikoaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak.

Hala ere, 9/2020 Foru Dekretu-Arauk honako hau dio: "*Gipuzkoako toki-erakundeen zerga-arauak eten egin dira, 2020rako eta 2021erako ezohiko izaerarekin eta ondorio eskusiboekin*". Horrek esan nahi du aurrekontu-egonkortasunaren eta zor publikoaren helburuak eraginik gabe uztea, eta urte horietan gastu-araua ez aplikatzea.

2021eko otsailaren 10ean, 372.887,67 euroko kredituak aldeztu aurretik sartzeko modalitatean aldatzeko espediente bat onartu zen, gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaren kargura finantzatua.

2021eko apirilaren 26an, kredituak gaitzeko modalitatean kredituak aldatzeko espediente bat onartu zen, 2b sektoreko urbanizazioaren abala gauzatzeari buruzkoa (38.438,45 €).

Kredituak aldatzeko bi espedienteak kontabilizatuta, egiaztatu da ez dela aurrekontu-egonkortasunaren helburua betetzen (1.869.074,08 €), eta zor publikoaren eta finantza-iraunkortasunaren helburua betetzen dela.

2021eko ekitaldian, gastu-araua eten egin da.

Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak erreferentziatzeko defizit-mugak ezarri ditu, eta horiek gaindituz gero, Udalak plan ekonomiko-finantzario bat egin eta onartu beharko du. Ekonomia- eta finantza-plan hori epe luzearako kudeaketa- eta plangintza-tresna izango da, baina haren betetze-mailatik ez da ondorioztatzen neurri gehigarriak hartzeko betebeharririk. Aretxabaletarako 2021ean ezarritako defizita - 760.887 eurokoa da.

Udalaren aurrekontuak argi eta garbi gainditzen du zenbateko hori, eta, beraz, 9/2020 Foru Dekretu Arauan adierazitako plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko du.

Plan ekonomiko-finantzario bat onartzeko betebeharra zehazteko, aurrekontu-egonkortasuna betetzen dela egiaztatuko da 2021. urteko aurrekontuaren likidazioarekin.

2020ko aurrekontuaren likidaziotik eratorritako diruzaintzako gerakin likidua 3.636.503,24 eurokoa izan da. 2019an eta 2018an 3.334.082,19 € eta 3.060.462,39 € izan ziren, hurrenez hurren.

2020ko aurrekontuaren likidaziotik eratorritako maila kontsolidatuko Aurrezki Gordina 2.087.290,80 eurokoa da. 2019an eta 2018an 2.121.018,83 eurokoa eta 2.771.519,52 eurokoa izan zen.


2020ko aurrekontuaren likidaziotik eratorritako maila kontsolidatuko Aurrezki Garbia 1.245.324,08 eurokoa da. 2019an eta 2018an 1.267.724,52 € eta 1.908.942,51 € izan ziren.

2021eko Aurrekontuaren Aurrezki Gordina eta Aurrezki Garbia 1.067.098,29 eta 232.352,73 euro dira, hurrenez hurren. Adierazle horiek nabarmen jaitsi dira, aurreko ekitaldiei dagokienez.

Aurtengo ekitaldian, diru-sarrerak normaltasunez eta egindako aurreikuspenen arabera garatzen ari dira, eta horiek COVID 19aren pandemiaren ondorioz izandako murrizketa kontuan hartu dute.

2021eko aurrekontua aurreko ekitaldiarekin alderatuta % 24 handituta onartu da. Aurrezki garbia nabarmen murriztu da aurreko ekitaldiekin alderatuta, eta, ondorioz, 2021eko ekitaldian proiektatutako inbertsioak finantzatzeko, epe luzeko maileguren bidezko finantzaketara jo behar izan da.

2022ko ekitaldiari begira, eta proiektatutako inbertsio-maila handia dela eta (Santakurtz Peasen zati bat eta komentuko obra), zeinaren etorkizuneko gastuen partidak 2021eko aurrekontuarekin batera onartu baitziren, litekeena da ekitaldia defizitarekin amaitzea eta hurrengo ekitaldietarako plan ekonomiko-finantzario bat onartu behar izatea.

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABLY4H.3ikD




Egungo zerga-arauen etendura luzatzen ez bada, egin beharreko ezohiko inbertsioak eta gastuak aztertu beharko dira; izan ere, 2023. eta 2024. ekitaldietan aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak bete beharko lirateke.

8. Galdera-eskariak.

Mikel Uribeetxebarriak gogorarazi du badirela bost bat hilabete herritar batek eskaera egin zuela udaletxean webgune bitartez. Eskaera honi jarraipena egin zaio, baina oraindik ez du erantzunik izan eta lotsagarria da. Eskaera izango litzateke herritar honi erantzuna ematea eta bestetik horrelako egoerak ekidin egin behar direla. Alkateak erantzun dio egia dela orain dela bost hilabete jaso zela eskaera, baina hirigintza batzorde batean, azkenekoan edo azken aurrekoan, erantzuna eman zuela eta gaur Mikelen emaila jasotakoan teknikariari pasa diola eta batzordean esan zena erantzungo da; baina eskaera ez da berak zuzenean egindakoa, EH Bilduren bitartez baizik eta jakinean zeundeten Saioaren erantzuna zein izan zan. Alkateak aitortu du asko berandutu dela erantzuten. Mikel Uribeetxebarriak esan du herritarrak jakinarazi ziola eskaera webgunearen bitartez egin zuela eta alkateak erantzun dio hori horrela bada zuzenean erantzungo zaiola.

Ion Albizuk erantsi du herritarra behin baino gehiagotan etorri zaiela idatzi duela esanez eta ez duela erantzunik jaso eta hori ezin da onartu. Gero beste kontu bat da gustuko erantzuna jasoko duen ala ez, baina behintzat esatea ikertuko dela, begiratuko dela eta hilabete barru erantzun. Hori inportantea da herritarrek merezi dugulako erantzun bat.

Eta besterik ezean, aipatutako eguneko arratsaldeko zazpirak direnean bilera amaitu egin da, eta nik, idazkariak, bertan gertatutakoa egiaztatzen dut.

Sinatzailea	IDAZKARIA Fco. Javier Mendizabal Garate
	<i>Dokumentu hau elektronikoki sinatuta dago. Egiazkotasuna ziurtatzeko joan interneteko orrialde honetara:</i> https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/13/AAAABLY4H.3ikD